



Arrieta Urtizberea, Maldonado, Etxenike, Aristi, Martinez eta Galardi, atzo Donostian. :: usoz

Filosofia defendatzera atera dira hainbat arlotako lagunak, ikastorduen murrizketa dela eta

Pedro Miguel Etxenike, Pako Aristi, Enrique Zuazua, Joxe Arregi eta beste batzuen artikulua dakartzat 'Filosofia defendatzera' liburuak

■ FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. 'Filosofia defendatzera' liburuak aurkeztu du Erein argitaletxeak. Hamahiru lagunentzako dakartzat, arlo askotako lagunak, bakoitzak filosofia defendatzeko aldarrikapen edo defentsa egiten duen bere arlo profesional horretatik. Hauek egin dituzte artikulua: Pedro Miguel Etxenike, Teresa Maldonado, Joxe Arregi, Pako Aristi, Garbiñe Biurrun, Oihana Ameskua, M^a Carmen Gallastegi, Xabier Galardi, Amaia Arenal, Agustín Arrieta Urtizberea eta Daniel Innenarity.

Liburuaren editore Inigo Martinez jardun da, institutuko filosofia irakaslea. Irakaskuntzaren arloko kezka batetik sortu baita artikulua: Lomce eta honen interpretazioa den Heziberri 2020k guztiz murriztu eta erkindu dute filosofia defendatzeko eskakizuna. Batxilergo guztientzat derrigorrezko izateak, hautazko izatera pasatu da, eta batxilergoko modalitate baten-tzat bakarrik.

Aurkezpen ekitaldian Teresa Maldonado ekintzaileak esan duenez, «ez gaude interes partikular batzuk defendatu nahian. Gabezia handia da gizarteak filosofia galtzea. Ez da kasualitatea agintariak filosofia defendatzeko eta kolokan jartzeko tresna baita filosofia». Pedro Miguel Etxenikeren aburuz, berriz, zien-

tziako galderak fintzen eta galdera berriak asmatzen. Bestalde, garbi dago gaur egungo estatu neoliberalak baduela zerikusia filosofiaekin, Lockeren filosofiaekin, alegia.

Pako Aristi idazlearen ustez, «filosofia ondo dago, baina segun zer filosofia. Egon dira filosofia errepre-sio eta genozidak ere. Filosofia ikas-tea izan nuen filosofia ikasi eta gero hura dena desikasi nuenen. Askatu egin behar dugu filosofia ere, gero geure pentsamendu kritikoa edukitzeko».

Xabier Galardik erlijioak eta filosofia jarri ditu haurremanetan bere artikuluan, eta aurkezpenaren behin eta berriz azpimarratu kapitalismoa erlijio bat dela gaur egun. Bere artikuluan proposamen batzuk egiten ditu filosofia irakaskuntzaren inguruan. Halaber, proposatzen du Euskal Herri osorako gutxienez Filosofia, teologia eta erlijio zientzietako fakultate bat sortzea. Teologiako Fakultatea unibertsitate publikoan ezartzeko eskaera, besteak beste, Carlos Santamariak, Andolin Eguzkitzak, Piarres Charritonek egin izan dute mundu laikotik, eta Joxe Arregik teologiaren eremutik, irakur daiteke Galardiren artikulua.

Agustín Arrieta Urtizberea unibertsitate irakaslea honela mintzatu da aurkezpen ekitaldian: «Aldarrikatzen dit filosofia eredu klasikoak. Dizi-plina orokorra da filosofia, eta batzuk uste dute, oker, dizi-plina hain orokor bat ezin dela ona izan; orokortasunetik antzutasuna

inferitzen dute». Irakasle honen esanetan, «filosofia, ohikoa dena irauli nahi du. Mugimendu animalistan, filosofo batzuk izan ziren aitzindariak, eta sexuen bereizketaren kontrako mugimenduan ere bai».

Erkidegoen arteko aldeak

Liburuko hitzaurrean Inigo Martinezek dioenez, Filosofia curriculum guztiz baztertu duten autonomia erkidegoak hauek dira: Madril, Gaztela-Leon, Galizia, Valentzia eta Euskadi. «Lomce eta Heziberri 2020, oinarrian, ez dira hainbeste desberdintzen, kosmetika ideologiko bati erantzuten dioten aldaketak baten aldatzea izan ezik -idatzit du Martinezek-. Are gehiago, lege berriak autonomia erkidegoei uzten dien zirkuituei begiratur, ikusiko dugu Estatuko lurralde

batzuk filosofikoagoak izan direla eta ikasgai hau euren curriculumetan babestea erabaki dutela. Horrela da Katalunia, Asturias, Andaluzia eta Extremaduran, non derrigorrezkoa baita batxilergo modalitate guztientzat. Beste batzuetan partzialki babestu omen dute, derrigorrezko bezala ezarritik modalitateen batean, hala nola Balear Irlak, Aragoi, Murtzia, Kantabria eta Errioxa.

2016-17 ikasturte hasieran, irakaskuntza-egoera honetaz kezkatuta, 'Agora' filosofia elkarteak -bertako kide da Martinez- tertulia batzuk antolatuta zituen, non parte hartu zuten orain liburrak artikulua idatzit dituzten lagunek eta beste zenbait.



FILOSOFIA DEFENDATZERA
13 ARTIKULU
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 171.
Prezioa: 14,50 euro.

ESPECIAL LAS LANDAS
FINES DE SEMANA DE JUNIO

Oferplan
EL DIARIO VASCO

¡NUEVO BUSCADOR DE ALOJAMIENTOS!
Reserva tu hotel al mejor precio
hotels.oferplan.diariovasco.com


Viajes gestionados por
Equinoccio Viajes.
Calle Prim, 29. Donostia
943 472 143

Camping Village Resort & Spa Le Vieux Port 5*

3 días y 2 noches en Mobil-Home en Messanges
¡Descubre el mayor camping 5 estrellas de Francia!

170€

¡ÚLTIMAS PLAZAS!



Camping 4* Lous Seurrots

2 noches de sólo alojamiento en Cottage o Chalet
con capacidad de 4 a 6 personas en Contins Plage

86€

¡ÚLTIMAS PLAZAS!



- 1 Entra en oferplan.diariovasco.com
- 2 Busca tu oferta y cómprala de manera segura con tu tarjeta de crédito.
- 3 Canjealo siguiendo las instrucciones de la oferta.